



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

# 2018KO URTEKO KUDEAKETA PLANA

2017ko urria



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

## **AURKIBIDEA**

1. SARRERA.....	3
2. 2017-2030 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ERREFERENTZIA NAGUSIAK.....	4
3. 2018KO UKP-KO PROIEKTUEN ZERRENDA.....	6
4. 2017-2030 ALDIRAKO PE-AREN ETA 2018KO UKP-AREN ARTEKO ERLAZIOA.....	7
5. PROIEKTUEN DESKRIBAPENA.....	8



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

## 1. SARRERA

Dokumentu honetan aurkezten dugun 2018ko Urteko Kudeaketa Plana 2017-2030 aldirako Plan Estrategikoan kokatzen da; Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak 2016ko urrian onartu zuen planean, hain zuzen.

Plan Estrategikoak (PE) IM eta SCPSArako epe luzerako, 2030erako, ikuspuntua eta muga taxutzen du, eta Urteko Kudeaketa Planak (UKP) proiektuen eta helburuen epe laburrerako zehaztapena dakar, urte baterako epean, ikuspuntu edo muga estrategiko horrekiko koherentzian.

Zehazki, Urteko Kudeaketa Planaren helburuak hauek dira:

1. Proiektu giltzarriak zehaztu eta erabakitzea, 2017-2030 aldirako Plan Estrategikoaren ardatz eta eronka estrategiko desberdinen arabera.
2. Erakundeak bere gain hartzen dituen kudeaketa konpromisoerik buruko informazio zehatza eta gardena ematea, bai proiektuei bai eta aurreikusitako emaitzei dagokienez, aginte taulako adierazle bidez.
3. Kudeaketaren jarraipena eta ebaluazioa erraztea maila desberdinetan, gobernu organoetatik eta zuzendaritzatik sailetaraino eta proiektu taldeetaraino.
4. Informazio hori herritarrei helaraztea, Gardentasun Atariaren bidez.

Urteko Kudeaketa Plana, era berean, kudeaketaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko oinarria da. Erakundearen barnean aldian behin egiten diren berrikuspenez gain, formalki sei hilean behingo berrikuspen bat ezarri da, ekaineko amaiera emaitzekin eta beste bat ekitaldiaren amaieran, haren bidez gobernu organoerik proiektu bakoitzaren bilakaeraren eta lortutako emaitzen berri emate aldera.

Halaber, urtero, 2017-2030 aldirako IM eta SCPSAren Plan Estrategikoko planteamenduen berrikuspena eta doitzea egiten da, Urteko Kudeaketa Plan bakoitzaren garapenaren eta hartan izandako lorpen partzialen arabera.

Azken batean, asmoa da Urteko Kudeaketa Planak eta dagozkion jarraipen txostenek erakundearen kudeaketaren aurrerapenaren ikuspegi global bat ematea, 2017-2030 aldirako IM eta SCPSAren Plan Estrategikoan adierazitako eta hartutako konpromisoekin bat eginda.



## **2. 2017-2030 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN ERREFERENTZIA NAGUSIAK**

### **2.1. MISIOA**

Iruñerriko bizi-kalitatea hobetzean laguntzea, uraren, garraioaren, hondakinen eta Ibai Parkearen zerbitzuak kudeatuta.

### **2.2. 2030ERAKO IKUSPEGIA**

IM-SCPSA erreferentziatzko erakunde gisa, eraginkortasun, iraunkortasun eta berrikuntzan.

### **2.3. BALIOAK**

#### **Gardentasuna eta hurbiltasuna**

Interes taldeen premiekiko interesa agertzen dugu eta informazio osoa, zehatza eta ulergarria ematen diegu, erakundeak bere misioa betetzean gauzatzen dituen prozesuen, erabakien eta emaitzen gainean.

#### **Profesionaltasuna eta konpromisoa**

Ahalik eta zorroztasun tekniko handienarekin lan egiten dugu, gutako bakoitzak bere onena emanda.

#### **Aurrerapena, malgutasuna eta bizkortasuna**

Gutaz espero dena ezagutu eta ikertzen dugu, aldaketara egokituta, eta planteatutako erronketara epean egokiak diren konponbideak eskaintzen ditugu.

#### **Koordinazioa eta talde lana**

Norbanakoon ahaleginen batura baino gehiago gara, taldearen sendotasunean eta lanean elkarlanean aritzean sinesten dugu.

#### **Sormena**

Egiteko moduak zalantzan jartzen ditugu, eta aukera berritzaileak, eraginkorrak eta askiesgarriak bilatzen ditugu.

### **2.4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK**

#### **• Lehen ardatz estrategikoa: Erakunde esparrua (MI)**

Iruñean eta Iruñerrian zerbitzuak emateko eredu erkidetuak argi utzi du eraginkorra dela konponbide teknikoak eta ingurumenekoak ematean, duen ibilbideari dagokionez, eskura ditugun datu eta adierazleetan jasota gelditu den moduan. Kalitate handia eskaini da zerbitzuak ematean eta gure esku dauden baliabideen erabilera iraunkorra egin dugu.

#### **• Bigarren ardatz estrategikoa: Herritarrekiko eta ingurunearekiko harremanak (HH)**

Iruñerriko Mankomunitatea eragin sozial zabaleko arloetan murgilduta dago, ezinbestekoak diren zerbitzuak emanez, izaera teknologiko nabarmenarekin eta herritar guztiekin harreman zuzen eta egunerokoan. Horrenbestez, elkarlanerako espiritua, kanpora irekitzea eta gardentasuna oso bereziki zaindu behar dituen faktoreak dira.

#### **• Hirugarren ardatz estrategikoa: Zerbitzu iraunkorrak herritarrentzat (ZIU)**

Iruñerriko Mankomunitatearen osaketa eta garapena zuzenean lotuta egon da ingurumeneko arazo larriak konpontzeko premiarekin, besteak beste, urez hornitzea, kantitate nahikoan eta kalitate onean, hondakin urak sanotzea, hondakinak bildu eta tratatzea, eta eskualdeko hiri garraioaren zerbitzua ematea. Horrekin nabarmen hobetu da Iruñerriko ingurumena eta bertako biztanleen bizi-kalitatea.

#### **• Laugarren ardatz estrategikoa: Bultzada teknologikoa herritarren alde (BT)**

Teknologia oso azkar ari da aurrera egiten eta eraldaketa digitalak eragin handia du jarduera esparru askotan, baita ematen ditugun zerbitzuetan ere, bai hautemandako kalitateari eta eraginkortasunari dagokionez, bai eta kostuari dagokionez ere. Hartara, bilakaera teknologiko hau herritarren alde aplikatu behar da.



**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
Mankomunitatea

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
Zerbitzuak e.a.

- **Bosgarren ardatz estrategikoa: Pertsona antolatua (PA)**

Erakundeko langileak benetako abiadura palanka dira, motibazioa pizten duen ingurune batean eta ahalik eta gogobetetasun handienarekin, haien lanak ahalik eta kalitate handiena ekar diezaien ematen ditugun zerbitzuei.

Antolaketarako formatuek arinagoak izan beharko dute, ez hain hierarkikoak, eta lantaldeen bidez pertsonen parte-hartzean eta ekarpenetan oinarrituta egon beharko dute. Kudeaketa sistemak aurreratua izan beharko du, eta jardura eta proiektuen eta, era berean, emaitzen ikuspegi globala, integratua eta sistematikoa erraztu beharko du.

- **Seigarren ardatz estrategikoa: Baliabide ekonomikoak (BE)**

Eskumenak gauzatzean gaitasun osoa duen erakunde gisa taxututa dago IM, eta helburua du kalitateko zerbitzuak eta autosufizientzia ekonomikoa lortzea, erabiltzaileentzat eta, oro har, komunitatearentzat onargarria den kostu batean.

Ardatz estrategiko hauetako bakoitza **ERRONKA ESTRATEGIKO** desberdinetan hedatzen da, Urteko Kudeaketa Planeko proiektu zehatzak hartzen dituztenetan, laugarren atalean jasota dagoen moduan.



### 3. 2018KO UKP-KO PROIEKTUEN ZERRENDA

1.	Hondakinak murrizteko, bereizteko eta biltzeko plana
2.	Hondakinen tratamendua
3.	“Behe” saneamenduko eta hornidurako sareak berritzeko plana
4.	EHGaren zerbitzua eta garajeak kudeatzea
5.	Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana (IHMIP)
6.	EHGaren zerbitzuaren berritze teknologikoa
7.	Klima aldaketa eta estrategia energetikoa
8.	Garapen profesionalerako programa
9.	Erreferentziazko antolabidea
10.	Kudeaketa eredu korporatiboa
11.	Ekonomia plana
12.	Berrikuntza plana eta teknologikoa
13.	IT Plan zuzentzailea/Enpresa kudeatzeko sistema (ERP)
14.	Administrazio elektronikoa
15.	SCPSAren azpiegiturak gauzatzea, 2018
16.	Egoitza berria









**Mancomunidad**  
Comarca de Pamplona  
Iruñerriko  
**Mankomunitatea**

**Servicios de la**  
Comarca de Pamplona s.a.  
Iruñerriko  
**Zerbitzuak e.a.**

## 5. PROIEKTUEN DESKRIBAPENA



ZERBITZUETAKO URTEKO KUDEAKETA PLANAK

1	HONDAKINAK MURRIZTEKO, BEREIZTEKO ETA BILTZEKO PLANA	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. HONDAKINAK (ZIHH). 1. ZIHH ERRONKA. Hondakinak murriztea eta jatorrian bereiztea maximizatzea. 2. ZIHH ERRONKA. Hondakinen bilketa eraginkorra egitea, helburuen arabera eta iraunkorra.	
<b>XEDEA</b>	Frakzioetako bakoitzean hondakin desegokien minimizatze eta bereizte tasak handitzea, arreta berezia jarrita frakzio organikoari dagokionean. Hondakinak sortzeari eustea eta gutxitzea. Nafarroako Hondakin Planean ezarrita dauden helburuak lortzea.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	2018ko komunikazio kanpaina.	%20
	RECONSERVAR proiektua garatzea.	%10
	Edukiontzia ikteko proiektu pilotua, gai organikoak bereiztea maximizatzeko.	%20
	Bilketa zerbitzua zuzenean kudeatzeari dagozkion azterlan beharrezkoak egitea (juridikoak, teknikoak eta ekonomikoak).	%15
	Garbiguneak: Burlatan kokatzea, HHTZn eta 5 garbigune txiki.	%15
	Lezkairuko bilketa pneumatikoko zentrala abian jartzea.	%10
	Auzoko konpostajerako 5 gune berri ezartzea.	%10
<b>ARDURADUNA</b>	Carmen Lainez Larragueta, Hondakinen Arloko zuzendaria.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	HONDAKINAK, KOMUNIKAZIOA, INGURUMENA, AZPIEGITURAK, GIZA BALIABIDEAK.	
<b>EPEA</b>	2018.	
<b>AURREKONTUA</b>	Kanpaina: 400.000 euro. Garbiguneak: 340.000 euro. Garbigune txikiak: 75.000 euro. RECONSERVAR: 40.000 euro.	
<b>OHARRAK</b>		



<b>2</b>	<b>HONDAKINEN TRATAMENDUA</b>	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. HONDAKINAK (ZIH). 3. ZIH ERRONKA. Hondakinen tratamendua eta balorizazioa, azken isurtzearen bolumena minimizatzeko. Hondakinen azpiegiturak eta instalazioak gauzatzea.	
<b>XEDEA</b>	Hondakinen frakzio desberdinak tratatzeko instalazio bat abiaraztea.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Instalaziorako lursailak eskuratzea.	%30
	Baimenak izapidetzea.	%20
	Hondakinak tratatzeko zentroaren proiektua enkantean hartzeko eskaintzea eta kontratatzea.	%50
<b>ARDURADUNA</b>	Azpiegiturak.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	HONDAKINAK, AZPIEGITURAK, BERRIKUNTZA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK, INGURUMENA.	
<b>EPEA</b>	2017-2020.	
<b>AURREKONTUA</b>	2018: 8.000.000 euro. Guztira: 55.000.000 euro.	
<b>OHARRAK</b>	Aurrekontuaren hasierako zenbatespena.	



<b>3</b>	<b>"BEHE" SANEAMENDUKO ETA HORNIDURAKO SAREAK BERRITZEKO PLANA</b>	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. URAREN ZIKLO INTEGRALA ETA IBAI PARKEA (ZIHU). 1. ZIHU ERRONKA. Zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren UZlren azpiegiturak aurreikusi, gauzatu eta haiei eustea, haien bizitza erabilgarria maximizatuta.	
<b>XEDEA</b>	"Behé" saneamenduko eta hornidurako sareak berritze plan zuzentzaile bat edukitzea SCPSAn, hurrengo urteetan gauzatu behar diren sareetako lanak eta proiektuak lehenesteko balioko duena, berritze egokia eta sarea ongi egotea bermatu ahal izateko.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Arriskuen mapak amaitzea.	%25
	Zonetan zatitzea eta neurketak egitea.	%25
	Aurrekontuak egitea zonen arabera.	%25
	Plana programatzea eta idaztea.	%25
<b>ARDURADUNA</b>	Javier Lerga Senosiáin, Plangintza eta GISeko burua.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	PLANGINTZA, URAREN ZIKLO INTEGRALA.	
<b>EPEA</b>	2017-2018.	
<b>AURREKONTUA</b>	Erakundearen baliabideak.	
<b>OHARRAK</b>		



4	EHG-AREN ZERBITZUA ETA GARAJEAK KUDEATZEA	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. GARRAIOA (ZIHG). 2. ZIHG ERRONKA. Kalitateko garraio publikoa izatea eta aurreratua teknologiei dagokienez.	
<b>XEDEA</b>	EHGa kudeatzeko sistema ezarri eta garatzea, egungo kontratua amaitzean (2019/10/31). Garaje berriak edukitzea EHGaren flotarako.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Zerbitzua emateko sistema aztertzea.	%10
	Proiektua kudeatzeko plana egitea.	%10
	Kontratatze prozesuak egin eta onartzea.	%50
	Garajeak: Agustindarren industrialdeko lursailak eskuratzea.	%10
	Garajeak: finantzatzeko sistema ezartzea.	%10
<b>ARDURADUNA</b>	Jesus Velasco Pérez, Garraio Arloko zuzendaria.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	GARRAIOA, IM.	
<b>EPEA</b>	2018 eta hurrengo urteak.	
<b>AURREKONTUA</b>	Kudeaketa azterlanak eta pleguak: 70.000 euro. Garajeen aurreproiektua: 30.000 (partziala, 2018).	
<b>OHARRAK</b>	Garraio planean sartua.	



<b>5</b>	<b>IRUÑERRIRAKO HIRI MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO PLANA (IHMIP)</b>	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. GARRAIOA (ZIHG). 1. ZIHG ERRONKA. IMk Iruñerrirako mugikortasun iraunkorreko eredu berria bultzatzea eta babestea. 2. ARDATZA. HERRITARREKIKO ETA INGURUNEAREKIKO HARREMANAK (HH). 1. HH ERRONKA. Herritarren inplikazioa bultzatzea, parte hartzeko prozesu eraginkorrak antolatuta.	
<b>XEDEA</b>	IHMIPa edukitzea, bertan jasota dauden helburuak eta horretarako onartzen den lanerako plana beteta.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Sare nagusiaren bideragarritasunaren azterlana amaitzea.	%30
	Herritarrek parte hartzeko prozesua amaitzea.	%40
	Finantzatzeko aukerak eta aurrekontuarekiko konpromiso maila aztertzea.	%20
	IHMIPa onartzea (jarraipen eta koordinazio batzordea) programazioaren arabera.	%10
<b>ARDURADUNA</b>	Jesús Velasco Pérez, Garraio Arloko zuzendaria.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	GARRAIOA, KOMUNIKAZIOA.	
<b>EPEA</b>	2016-2019.	
<b>AURREKONTUA</b>	Garraioa aholkularitza: 20.200,95 euro. Parte-hartzerako laguntza tekniko: 50.711,10 euro. Parte-hartzea dinamizatze jarduerak: 30.000 euro. Sare nagusiaren bideragarritasuna aztertzea: 94.347,33 euro. Proiektua kudeatzea: 19.239 euro.	
<b>OHARRAK</b>	Garraio planean sartua.	



<b>6</b>	<b>EHG-AREN ZERBITZUAREN BERRITZE TEKNOLOGIKOA</b>	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. GARRAIOA (ZIHG). 2. ZIHG ERRONKA. Kalitateko garraio publikoa izatea eta aurreratua teknologiei dagokienez. 3. ZIHG ERRONKA. Taxiaren arloa. Modernizazioa, iraunkortasuna, erregulazioa eta optimizazioa.	
<b>XEDEA</b>	Garraio zerbitzua teknologikoki hobetzea, progresiboki sartuta zerbitzua hobeki emateko sistema eta baliabide aurreratuak (EHGa eta Taxia).	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Ordainbidea berritzea onartzea IMk.	%20
	Ordainbidea berritzea kontratatzea TCCk.	%10
	Ordainbidearen berritze teknologikoa ezartzen hastea TCC.	%10
	SAE eta komunikazioen berritze teknologikoa aztertzea.	%30
	Dentsitate baxuko taxian EHGko txartelaren bidez ordaintzea kudeatzeko proiektu pilotua.	%30
<b>ARDURADUNA</b>	Jesús Velasco Pérez, Garraio Arloko zuzendaria.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	GARRAIOA, INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK.	
<b>EPEA</b>	2017-2018.	
<b>AURREKONTUA</b>	Berritze teknologikorako proiektua kudeatzea: 35.000 euro. Kargatzeko era berrien lehen fasea ezartzea: 15.000 euro. Ordainbidearen SCMa berritzea: 15.000 euro. Dentsitate baxuko taxian EHGko txartelaren bidez ordaintzea kudeatzeko proiektu pilotua: 50.000 euro.	
<b>OHARRAK</b>	Garraio planean sartua.	



7	KLIMA ALDAKETA ETA ESTRATEGIA ENERGETIKOA	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT: KLIMA ALDAKETA. (ZIHK). 1. ZIHK ERRONKA. Mankomunitate neutroa, karbonoari dagokionez, 2030ean.	
<b>XEDEA</b>	2030erako Iruñerriko Mankomunitatea, karbonoari dagokionez, neutroa izatea lortzea.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	1. SCPSAren flota elektrikoa %100ean eta gutxiago kutsatzen duten beste erregibatzuk.	%5
	2. Elektrizitatea EHGko autobusetan. Eskaeraren arabera kargatzeko proba pilotua.	%20
	3. Biometanoa erregai gisa baliatzeko sistema orokorra diseinatzea.	%25
	4. Hondakinen kamioietan eta EHGaren autobusetan biometanora eraldatzea diseinatzea.	%25
	5. IM eta SCPSAren 2017ko karbono aztarna kalkulatu eta zertifikatzea.	%5
	6. Bi proiektu energetiko eta energia gutxitzeko gauzatzea.	%10
	7. IM eta SCPSAko hoditerien aprobetxamendu termikoa ebaluatzea (II. fasea).	%10
<b>ARDURADUNA</b>	Álvaro Miranda, Berrikuntzako eta Proiektu Estrategikoetako zuzendaria.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	BERRIKUNTZA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK, UZI, AZPIEGITURAK, PLANGINTZA.	
<b>EPEA</b>	2018.	
<b>AURREKONTUA</b>	Karbono aztarna zertifikatzea: 6.000 euro. Biogasa arazteko proiekturako laguntza teknikoa: 20.000 euro. Sareen ebaluazio energetikoaren azterlana: 15.000 euro.	
<b>OHARRAK</b>		





<b>8</b>	<b>GARAPEN PROFESIONALERAKO PROGRAMA</b>	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	5. ARDATZA. PERTSONA ANTOLATUAK (PA). 2. PA ERRONKA. Garapen profesionala laguntzea, barnean hartuta lidergoa gauzatzea.	
<b>XEDEA</b>	Erakundeko pertsonen kudeaketa garatzea eta hari eustea, bai beren ezagutzei eta gaitasunei dagokienez, bai eta enpresarekiko duten konpromisoari dagokionez, barnean hartuta lidergoa gauzatzea.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	SCPSAraiko garapen profesionaleko programa diseinatzea.	%40
	Programa proiektu pilotu batean aplikatzea.	%25
	Lidergoa: neurketa eta hobekuntza plan orokorrak eta berariazkoak.	%35
<b>ARDURADUNA</b>	Teresa Azcona, Giza Baliabideen zuzendaria.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	GIZA BALIABIDEAK, ANTOLAKETA, ZUZENDARITZA-KUDEATZAILTZA, INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK. Enpresako sailen multzoa.	
<b>EPEA</b>	Diseinua eta lehen pilotu esperientzia: 2018. Pixkana hedatzea: 2019-2022.	
<b>AURREKONTUA</b>	Laguntza teknikoa: 20.000 euro.	
<b>OHARRAK</b>		



9	ERREFERENTZIAZKO ANTOLABIDEA	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	5. ARDATZA. PERTSONA ANTOLATUAK (PA). 1. PA ERRONKA. Giza baliabideentzako lan esparru bat edukitzea, barnean hartuko duena aurrez ikus daitekeen antolaketa eta teknologia bilakaera, belaunaldi ordezkapena/plantilla berritzea, eta giza baliabideen eta antolaketaren politika guztiak.	
<b>XEDEA</b>	Hala egitea eskatzen duten antolaketako proposamenak aztertu eta egitea (organigrama, lanpostuak, koordinatzeko mekanismoak eta abar), 2017an landutako erreferentziazko egituraren arabera.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Sareen eta Instalazioen Mantentze Zentroa-Bezeroak proiektua.	%25
	Finantzetako eta erosketetako proiektua.	%25
	Azpiegituretako proiektua.	%25
	Plangintzako proiektua.	%25
<b>ARDURADUNA</b>	Manuel Iribarren Oscoz, Antolaketaren Garapeneko zuzendariordea.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	UZI-REN ZERBITZUA, BEZEROAK, FINANTZAK ETA EROSKETAK, PLANGINTZA ETA AZPIEGITURAK, GIZA BALIABIDEAK, ZUZENDARITZA-KUDEATZAILTZA.	
<b>EPEA</b>	2018	
<b>AURREKONTUA</b>	Erakundearen baliabideak.	
<b>OHARRAK</b>		



10	KUDEAKETA EREDU KORPORATIBOA	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	5. ARDATZA. PERTSONA ANTOLATUAK (PA). 4. PA ERRONKA. Antolaketa malguagoa, arinagoa eta zeharkakoagoa lortzea, erronka estrategikoekiko koherentea dena. 4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT). 2. BT ERRONKA. Barne kudeaketa teknologikoa. Zeharkako proiektu teknologikoak eta egituratzaileak kudeatzea epe ertainean.	
<b>XEDEA</b>	Erakundearen funtzionamendua eta emaitzak hobetzea, hauen bidez: - Jarduera (prozesuak eta proiektuak) eta adierazle guztiak era globalean eta integratuan ulertzea. - Haiek sistematizatzea, berrikuspenerako eta hobekuntzarako oinarri moduan, bai jarraiturako eta bai errotikakorako ere.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Diagnostikotik eratorritako jarduketa plana egitea, 2017ko laugarren hiruhilekoa amaitzean.	%30
	Prozesuen %25 sistematizatzea, prozesuen mapa eguneratutik aurrera.	%30
	BI (Business Intelligence, negozioko adimena) adierazleen kudeaketa: giza baliabideen analitika ezartzea.	%15
	BI adierazleen kudeaketa: hondakinen analitika ezartzea.	%15
	Euskarria adierazle korporatiboen proiektuari.	%10
<b>ARDURADUNA</b>	Manuel Iribarren Oscoz, Antolaketaren Garapeneko zuzendariordea.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	ZUZENDARITZA-KUDEATZAILAZ, INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK. ENPRESAKO SAILEN MULTZOA.	
<b>EPEA</b>	2017 Análisis. 2018 Garapena. 2019 Garapena eta kanpoko ebaluazioa.	
<b>AURREKONTUA</b>	Laguntza teknikoa: 16.000 euro.	
<b>OHARRAK</b>		



<b>11</b>	<b>EKONOMIA PLANA</b>	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	6. ARDATZA. BALIABIDE EKONOMIKOAK (BE). 1. BE ERRONKA. IM eta SCPSAren ekonomia-finantza plana, oreka eta independentzia ekonomikoa islatuko duena, tarifen/finantzaketaren esparru egonkor baten bidez.	
<b>XEDEA</b>	Emandako zerbitzuen kostua ezagutzea eta haiek tarifetan duten eragina ebaluatzea, kostuak ordainarazteko erabiltzaileei. Plan Estrategikoan planteatutako proiektuen arabera zerbitzuak emateko IM-SCPSAk egin behar dituen inbertsioen eta ustiatze kostuen eta diru-sarreren epe labur, ertain eta luzerako kostuaren analisia edukitzea.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Kostuen analisia amaitzea: aldatetak biltzeko sisteman.	%20
	Tarifa eredu desberdinen analisia egitea.	%40
	Kostuen eraginaren sentsibiltatea aztertzea, parametroen arabera.	%40
<b>ARDURADUNA</b>	Javier Boneta Beorlegui, Ekonomiako eta Herritarrekiko Harremanetarako zuzendariordea.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	FINANTZAK, KONTU-HARTZAILAZA, BEZEROAK, AZPIEGITURAK.	
<b>EPEA</b>	2017-2018.	
<b>AURREKONTUA</b>	Barneko baliabideak.	
<b>OHARRAK</b>		



<b>12</b>	<b>BERRIKUNTZA PLANA ETA TEKNOLOGIKOA</b>	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT). 1. BT ERRONKA. IM eta SCPSAren plan teknologikoa edukitzea.	
<b>XEDEA</b>	Berrikuntza prozesu sistematiakoari eustea IM-SCPSAn eta ekimen teknologikoei eta estrategikoei heltzea epe ertain eta luzean.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Idéate: onartutako iradokizunak epean ezartzea %100ean.	%10
	SCPSAko berrikuntzako 5 proiektu amaitzea.	%10
	Beste batzuekin egiten ari garen berrikuntzako 2 proiektu garatzea.	%10
	Hornidura iturrien kudeaketa hidrolorikoko sistema aditu bat diseinatzea.	%10
	IM-SCPSAko Plan Teknologikoa idaztea.	%40
	Nafarroako Gobernuaren eta ISCren (NUP) Smart Cities proiektuan lankidetzan aritzea.	%10
<b>ARDURADUNA</b>	Álvaro Miranda Simavilla, Berrikuntzako eta Proiektu Estrategikoetako zuzendaria.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	BERRIKUNTZA ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOAK. ERAKUNDEKO SAILEN MULTZOA.	
<b>EPEA</b>	2018.	
<b>AURREKONTUA</b>	Laguntza teknikoa: 40.000 euro. I+G+B proiektuak: 40.000 euro.	
<b>OHARRAK</b>		



<b>13</b>	<b>IT PLAN ZUZENTZAILEA/ENPRESA KUDEATZEKO SISTEMA (ERP)</b>	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT). 1. BT ERRONKA. IM eta SCPSAren plan teknologikoa edukitzea. 2. BT ERRONKA. Barne kudeaketa teknologikoa. Zeharkako proiektu teknologikoak eta egituratzaileak kudeatzea epe ertainean.	
<b>XEDEA</b>	Enpresa kudeatzeko sistema bat edukitzea (ERP), enpresaren negozio arlo gehien prozesuak eta informazioa integrazteko bidea emango duena, informazioaren teknologien bilakaeraren esparru orokorraren barnean.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Informazioaren teknologien plan zuzentzailea egitea.	%40
	ERP sistemaren ebaluazioa eta hautaketa.	%40
	ERP sistema enkantean hartzeko eskaintzea eta ezartzen hasia.	%20
<b>ARDURADUNA</b>	Felipe Alonso Rodriguez, Informazioaren Teknologien zuzendaria.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	DENAK. Bereziki, FINANTZAK ETA EROSKETAK, AZPIEGITURAK, BEZEROAK, ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEAK.	
<b>EPEA</b>	Aholkularitza: 2018. ERP sistema ezartzea: 2018-2020.	
<b>AURREKONTUA</b>	2018: 200.000 euro.	
<b>OHARRAK</b>		



<b>14</b>	<b>ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA</b>	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	4. ARDATZA. BULTZADA TEKNOLOGIKOA (BT). 3. BT ERRONKA. Teknologian oinarritutako bezeroak eta zerbitzuak. Zerbitzu adimendunen estrategia diseinatu eta ezartzea, herritarrei begirakoak eta Nafarroako "Smart Cities" ekimenarekin lerrokatuak.	
<b>XEDEA</b>	Kudeaketaren eraginkortasuna handitzea, herritarrei ematen ditugun zerbitzuekin lotutako izapideetarako sarbide elektronikoa erraztuta, haiek sinplifikatuta eta arinduta, administrazio elektronikoko prozesuak eta aplikazioak ezartzearen bidez, eta erakundea herritarrekin lan egiteko modu honetara egokituta 2018ko helmenarekin.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Idazkaritzako modulua sendotzea: arreta gobernuko organoei eta erabakiak kudeatzea ezartzea (zuzendaritzaren mailan).	%20
	ALSIGM sistemaren bilakaera: elkarreragingarritasuna. SARA sarea: SCSP datuak egiaztatuta eta kontsultatzeko zerbitzuak. Barneko beste informazio sistema batzuen zerbitzuak (ERP Lawson, Prisma...).	%30
	Jakinarazpen elektronikoen sistemaren migrazioa Herri Administrazioen Ministerioak eskainitako zerbitzura.	%10
	Espediente edo txosten elektronikoa ezartzea, tresna elektronikoa desberdinak hedatu eta haien prestakuntza ematearekin batera (prozedurak modelizatzea, ziurtagiri elektronikoa, sinadura elektronikoa, jakinarazpen elektronikoa, izapidetze elektronikoa).	%30
	Lizitazio elektronikoen analisia.	%10
<b>ARDURADUNA</b>	Felipe Alonso Rodriguez, Informazioaren Teknologien zuzendaria.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	DENAK. Bereziki, IM, BEZEROAK, ETA FINANTZAK ETA EROSKETAK (KONTRATATZEKO PROZESUA).	
<b>EPEA</b>	2018-2022.	
<b>AURREKONTUA</b>	75.000 euro.	
<b>OHARRAK</b>		



15	SCPSA-REN AZPIEGITURAK GAUZATZEA, 2018	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. URAREN ZIKLO INTEGRALA (ZIHU). 1. ZIHU ERRONKA. Zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren UZiren azpiegiturak aurreikusi, gauzatu eta haiei eustea, haien bizitza erabilgarria maximizatuta. 5. ZIHU ERRONKA. Ibai Parkea. Zabaltzea eta integratzea, eskualdeko mugikortasun iraunkorrerako ardatz moduan.  3. ARDATZA. ZERBITZU IRAUNKORRAK HERRITARRENTZAT. HONDAKINAK (ZIH) 3. ZIH ERRONKA. Hondakinen tratamendua eta balorizazioa, azken isurtzearen bolumena minimizatzeko. Hondakinen azpiegiturak edo instalazioak gauzatzea.	
<b>XEDEA</b>	Proiektuak eta lanak gauzatzea, beren denbora-programazioaren arabera, SCPSAren 2018rako aurrekontuetan zehaztutakoak, garrantzi handiena dutenak lehenetsita.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	GOI HORNIDURA. IMren eremua (6 jarduketa).	%25,2
	GOI HORNIDURA. Eremu mugakideak (jarduketa 1).	%5,9
	GOI SANEAMENDUA (9 jarduketa).	%31,7
	HORNIDURAKO ETA SANEAMENDUKO TOKIKO SAREAK (4 jarduketa).	%9,3
	HIRI HONDAKIN SOLIDOEN TRATAMENDUA (jarduketa 1).	%9,5
	IBAI PARKEA (jarduketa 1).	%7,0
	ERAIKINAK eta BESTE BATZUK (4 jarduketa).	%11,3
<b>ARDURADUNA</b>	Juan Ramón Ilarregui Tejada, Azpiegituretako zuzendaria.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	AZPIEGITURAK, UZI, HONDAKINAK, INGURUMENA.	
<b>EPEA</b>	2018 eta hurrengo urteak (hainbat urtetarako garapena).	
<b>AURREKONTUA</b>		
<b>OHARRAK</b>	Begiratu eranskina. Beren garrantzi eta tamainarengatik, ez dira UKP honetan sartzen berariazko UKPetan (garbiguneak, tratamendu planta eta egoitza) isla duten proiektu bereziak.	





15	SCPSA-KO 2018KO AZPIEGITURAK GAUZATZEA (ERANSKINA)	
Amaizteko urtea	JARDUKETAK	Ponderazioa UKParen arabera
	<b>GOI HORNIDURA. IMren eremua eta mugakideak</b>	
2018	URAREN SARRERA ERABERRITZEA ETA OBRA ZIBILA BERRITZEA MIRAVALLESKO UR-BILTEGIAN	%5,3
2018	URTASUNGO EUTE BERRITZEA, I. FASEA: IRAZKIAK	%3,7
2018	ARTETAKO UBIDEETAKO TUNELA BERRITZEA SALDISE/EGILLORREN	%2,1
2018	PONPATZEA ETA BULKATZEA ZULUETAN	%6,0
2018	ERITZEKO UR-BILTEGIA (ITZA)	%2,6
2019	URTASUNGO EUTE BERRITZEA, II. FASEA: DEKANTAZIO-TANGAK	%5,4
	<b>GOI HORNIDURA. Eremu mugakideak</b>	
2018	EUGI HORNITZEA	%5,9
	<b>GOI SANEAMENDUA</b>	
2018	HUSTUBIDEA ETA ARAZKETA OLTZAN	%1,7
2018	HUSTUBIDEA ETA ARAZKETA GERENDIAINEN	%0,4
2018	HUSTUBIDEA ETA ARAZKETA IHARNOTZEN	%1,2
2019	ELO ETA GETZE IBARGOITIKO HUA	%10,0
2018	HUSTUBIDEA ETA ARAZKETA MAKIRRIAINEN	%1,7
2018	HUSTUBIDEA ETA ARAZKETA ZILDOTZEN	%1,6
2019	HUSTUBIDEA ETA HOBI SEPTIKOA ERITZEN (ITZA)	%1,1
2018	KOLEKTorea LABIANO-ZOLINAN	%3,0
2019	PONPATZE BERRIA ETA HONDAKIN URAK PONPATZEA ARAZURIN	%11,0
	<b>HORNIDURAKO ETA SANEAMENDUKO TOKIKO SAREAK</b>	
2018	EURI UREN SANEAMENDU SAREA MILUZE KALEAN	%5,3
2018	SANEAMENDUKO KOLEKTOREAK BERRITZEA ERDIKO ETORBIDEAN, BARAÑAINEN	%1,2
2018	OBOIDEA BERRITZEA BARAÑAINGO INGURABIDEAN	%1,2
2018	EURI UREN SAREA HANDITZEA IBAIALDE PASEALEKUAN, MUTILOAN	%1,5
	<b>HONDAKINAK</b>	
2018	15. GELAXKA EGOKITZEA ETA LAN OSAGARRIAK EGITEA GONGORAKO HHTZ-N	%5,3
	<b>IBAI PARKEA</b>	
2018	ARAZURI-ORORBIA AZPIZATIA (ARAZURI-IBERO ZATIA)	%7,0
	<b>ERAIKINAK eta BESTE BAZUK</b>	
2018	URTASUNGO EUTE-KO ERAIKIN NAGUSIA BIRMOLDATZEA	%4,5
2018	TELEAGINTEKO ARETOAK, EGILLORKO LABORATEGIA ETA ESTALKIAK BIRMOLDATZEA	%2,6
2018	ARAZURIKO HUA-KO BILTEGIA EGOKITZEA	%4,2
2018	ERAISPENAK ARAZURIKO HUA-N	%4,3
	<b>AURREKONTUA</b>	
	GOI HORNIDURA. IMren eremua (6 jarduketa)	2.877.724
	GOI HORNIDURA. Eremu mugakideak (jarduketa 1)	672.462
	GOI SANEAMENDUA (9 jarduketa)	3.619.204
	HORNIDURAKO ETA SANEAMENDUKO TOKIKO SAREAK (4 jarduketa)	1.063.101
	HONDAKINAK (jarduketa 1)	600.052
	IBAI PARKEA (jarduketa 1)	800.000
	ERAIKINAK eta BESTE BATZUK (4 jarduketa)	1.785.000



<b>16</b>	<b>EGOITZA BERRIA</b>	
<b>2017-2030 ALDIRAKO PE-KO ARDATZ ETA ERRONKA ESTRATEGIKOAK</b>	5. ARDATZA. PERTSONA ANTOLATUAK (PA). 5. PA ERRONKA. IM eta SCPSAren egoitza berria.	
<b>XEDEA</b>	IM-SCPSAren egoitza bateratua hartuko duen eraikin bat izatea, herritarrei arreta egiteko, administraziorako eta administrazio egoitzarako guneak barnean hartuko dituena.	Ponderazioa
<b>HELBURUAK</b>	Oinarrizko proiektua idaztea.	%40
	Eraikitzeke lizentziak eta baimenak izapidetzea.	%10
	Eraikitzeke proiektua idaztea.	%40
	Eraikitzeke plegua prestatzea.	%10
<b>ARDURADUNA</b>	Laura Rives Navarro, arkitektoa.	%100
<b>INPLIKATUTA DAUDEN ARLOAK</b>	AZPIEGITURAK, ANTOLAKETA.	
<b>EPEA</b>	2017-2021.	
<b>AURREKONTUA</b>	2018: 405.000 euro. Proiektua idaztea. 2019: 5.800.000 euro. Gauzatzea. 2020: 5.800.000 euro. Gauzatzea. 2021: Gauzatzen amaitzea eta lekualdatzea.	
<b>OHARRAK</b>		